## HERNANIKO UDALA

*Iragarkia*

Tokiko Gobernu batzarrak, 2014ko maiatzaren 9an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

> *8. 2014ko martxoaren 28ko tokiko gobernu batzararen bileran onartutako administrazio orokorreko teknikari lanpostu bat betetzeko oinarri arautzaileetan aldaketa.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko martxoaren 28an egindako ohizko bilkuran onartu zituen Udaleko plantillan hutsik dagoen administrazio orokorreko teknikari lanpostu bat lehiaketa-oposizio librez betetzeko deialdia eta deialdiaren oinarri arautzaileak.

Aipatutako deialdi eta oinarriak 2014ko apirilaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 80 zenbakiarekin.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko martxoaren 28ko ohiko bilkuran onartutako aipatutako lehiaketa- oposizioko 9. oinarria zuzentzea, ondorengo zentzuan:

— *Hau esaten duen lekuan:*

Epaimahaiak aukeratutako bi ariketa praktiko garatu behar dira. Ariketa horiek gai espezifikoekin eta lanpostuaren zereginekin izango dute lotura.

— *Hau esan behar du:*

Epaimahaiak aukeratutako bi ariketa praktiko garatu behar dira. Ariketa horiek gai orokorrak era sakonean eta gai espezifikoekin eta lanpostuaren zereginekin izango dute lotura.

2. Akordio honen berri eman ospatuko den hurrengo Pertsonaleko Batzorde Informatzailean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako administrazioarekiko auzitarako epaitegian, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epean. Horrez gain, egokiak irizten diren errekurtsoak jarri ahal izango dira.

Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hala nahi izanez gero berraztertzekoa aurkeztu ahal izango zaio erabaki hau hartu duen organoari, argitaratu ondorengo hilabeteko epean.

Iragarki hau argitaratzen da denek jakin dezaten.

Hernani, 2014ko maiatzaren 9a.—Luis Intxauspe Arozamena, alkatea. (4455)

## AYUNTAMIENTO DE HERNANI

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el día 9 de mayo de 2014, adoptó entre otros el siguiente acuerdo:

> *8. Modificación de las bases reguladoras para cubrir una plaza de técnico de administración general, aprobadas por la junta de gobierno local de 28 de marzo de 2014.*

La Junta de Gobierno Local en sesión ordinaria celebrada el día 28 de marzo de 2014 aprobó la convocatoria, mediante el sistema de concurso-oposición de turno libre, para cubrir una plaza de técnico de administración general del Ayuntamiento.

La citada convocatoria y sus bases fueron publicadas en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 80 de 30 de abril de 2014.

Se acuerda por unanimidad:

1. Modificar la base 9.ª de las bases del referido concurso-oposición aprobado en sesión ordinaria del a Junta de Gobierno Local celebrada el día 28 de marzo de 2014, en el sentido siguiente:

— *Donde dice:*

Consistirá en desarrollar uno o varios supuestos prácticos que plantee el Tribunal. Estos ejercicios estarán relacionados con las materias específicas del temario y las funciones del puesto.

— *Debe decir:*

Consistirá en desarrollar uno o varios supuestos prácticos que plantee el Tribunal. Estos ejercicios estarán relacionados con las materias generales en profundidad y con las materias específicas del temario y las funciones del puesto.

2. Dar cuenta del presente acuerdo en la próxima Comisión Informativa de Personal que se celebre.

Contra este acuerdo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que se pueda interponer cualquier otro recurso que se estime procedente.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra este acuerdo se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo ha dictado, en el plazo de un mes desde su publicación.

Lo que se publica para general conocimiento.

Hernani, a 9 de mayo de 2014.—El alcalde, Luis Intxauspe Arozamena. (4455)